

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Urrutiko Lanbide Heziketako ikasketak egiteko eskaera-epea zabalduko da astelehenean

Erdi- eta goi-mailako bederatzi ziklotako 360 plaza eskaintzen dira guztira

Jueves, 03 de septiembre de 2015

Datorren astelehenean, irailak 7, [2015-2016 ikasturtean urrutiko Lanbide Heziketako ikasketak](#) egiteko eskaera-epea zabalduko da, eta hilaren 11n amaituko. Erdi- eta goi-mailako bederatzi ziklotako 360 plaza eskaintzen dira guztira, hau da, berrogei plaza ziklo bakoitzean.

Urrutiko Lanbide Heziketako modalitate hori [eskatutako titulazioen](#) bat duten 20 urtetik gorako pertsonak egin dezakete, ikastetxe batean aurrez aurreko zati bat ere barnean hartzen duena.

Interesa duten pertsonak izena emateko fitxa www.navarra.es Izapideen Katalogoaren bidez aurkez dezakete edo ikasi nahi duten zikloa eskaintzen duen ikastetxeko idazkaritzan.

Eskainitako erdi-mailako zikloak honako hauek dira: [Sistema Mikroinformatikoak eta Sareak](#), eta [Osasun Larrialdiak](#). Goi-mailakoak, berriz: [Haur Hezkuntza](#), [Turismoko Ostatuaren Kudeaketa](#), [Marketin eta Publizitatea](#), [Industriako Automatizazio eta Robotizazioa](#), [Zentral Elektrikoak](#), [Sareko Informatika Sistemen Administrazioa](#), eta [Web Aplikazioen Garapena](#). Azken hiru horiek estreinakoz eskaintzen dira.

[Abuztuaren 10eko NAOean argitaratutako](#) Ebazpenean, gainera, eskaintzaren beste alderdi batzuk jasotzen dira, esaterako: onarpen-irizpideak, moduluak baliozkotzeko prozedura edo esperientzia egiaztatzeko sistema.